

"Network for Education and Training of Teachers (NETT)" sareko ordezkariak Eskoriatzako campusean elkartuko dira

2016/06/13

Ekainaren 15etik 18ra elkartuko dira Eskoriatzako campusean "Network for Education and Training of Teachers (NETT)" sareko ordezkariak. Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak antolatuko jardunaldian, bilduko dira Europako Hezkuntza fakultateetako 33 ordezkari. Bilkuraren helburua da sustatzea ikasle zein irakasleen nazioartekotzea hezkuntza arloan.

Hiru egunean zehar, bildutakoek parte hartuko dute hitzaldietan, mintegietan eta hainbat *workshop*-etan: Gainera, behin lan akademikoa bukatuta, bisitariak aukera izango dute inguruko parajeetan ezagutzeko. Jardunaldira etorriko dira, besteak beste, hurrengo herrialdeetako ordezkariak: Hungaria, Lituania, Suitza, Herbehereak, Frantzia eta Portugal.

MONDRAGON UNIBERTSITATEA 2010 urteaz geroztik da kide "Network for Education and Training of Teachers (NETT)" sarean.

- **Jardunaldiaren gaineko informazio**
osoa: <http://nett2016.mondragon.edu/en>
- **Eguneraketa** (2016-06-16): [jardunaldiko argazki galeria](#).



Nazioarteko Hezkuntza fakultateetako ordezkariak Eskoriatzako campusean.